

X. ipuin lehiaketa



Aurkibidea

• Agurra	2	II.Kategoria (7-8 urtekoena)	8
• Parte hartzaileak eta epaimahaikideak	3	III.Kategoria (9-12 urtekoena)	13
I. Kategoria (5-6 urtekoena)	4	IV.Kategoria (13-17 urtekoena)	20
		V.Kategoria (18 urtetik aurrera) ...	29

AGURRA

Irakurle hori,

Esku artean dozun ipuin-liburuxka honetan X. edizinoari jagokozan lehenengo lan sarituak topauko dozuz.

X. edizinoa! Nork esango leuke! Ibilbide polita egin dau bai, daborduko, herrien arteko ipuin lehiaketa honek!

Orain arte irauin izana zuoi, herritarroi, esker izan da; izan be, zuon parte hartzea, zuon idazteko zaletasuna, zuon gauzak ondo egiteko gogoia eta ardurea... ezinbestekoak izan dira urte honeetan guztietan.

X. edizinoa bera be, parte hartzeari jagokonez, inoizkorik arrakastatsuen izatea lortu dozue: igazko lan-kopurua bikoiztu egin da!

Eskerrik asko eta, zelan ez, zorionak urte honeetan guztiotan bide-lagun izan zareen guztioi.

Orain aurrera begitu eta ia beste horrenbeste urte egiteko gai garen. Ziur baietz!



Edurne Torrealdaiz Erezuma
Arrietako Udaleko alkatea



Jose Luis Elgezabal Orbe
Fruizko Udaleko alkatea



Mª Jesus Menica Bengochea
Gamiz-Fikako Udaleko alkatea



Aitor Ugarte Torre
Meñakako Udaleko alkatea

X. IPUIN LEHIAKETA

PARTE HARTZAILEAK 2008

- AGIRRE URRUTIA ARITZ
- AGIRRE URRUTIA NAIA
- AGIRREGOITIA ENZUNZA UXUE
- ALAYO ZARATE MATXALEN
- ALONSO ARBERAS RIKARDO
- ANTOLINEZ MENDEZ MAITE
- AROSTEGI RODRIGUEZ LIBE
- AROSTEGI RODRIGUEZ ANE
- AZKETA RIKE AITOR
- AZKETA RIKE SORKUNDE
- BARONA ASTRID
- BELDARRAIN ETXEBARRIA JOSEBA
- BELDARRAIN ETXEBARRIA KOLDO
- BENGOETXEA GALDONA ARAITZ
- BENGOETXEA GALDONA OIER
- ENZUNZA MALLONA AINHOA
- ENZUNZA MALLONA IRATI
- ENZUNZA MALLONA OLATZ
- ELGEZABAL MONASTERIO GOIAZ
- ELGEZABAL MONASTERIO IBAI
- ETXEBARRIA ELORDI ITZIAR
- GOROSTIAGA URKIZU AINHOA
- HENDERSON MADARIAGA DELAKN ENAUT
- HENDERSON MADARIAGA KIERA ELAI
- JUIZ RUIZ AITOR
- JUIZ RUIZ JONE
- LANDETA URIARTE IÑAKI
- LARRABE HERNAEZ LANDER
- LARRABEITI ELORRIAGA SAIOA
- LARRINAGA COVO IRATI
- LOPEZ APRAIZ LOREA
- MARTIN ZUGAZAGA ALAZNE
- MORA PEREZ ARITZ
- MUNIOZGUREN AROSTEGI BITTOR
- OLAZAR BARONA IAN
- OLAZAR BARONA LEIRE
- REICHENBERGER CABALLERO IRATI
- RIKE GARAIZAR LARRAITZ
- RIKE GARAIZAR ORZURI
- TORRE LLONA OIER
- URIA GARAIZAR IGNACIO
- VILLAR LEGARRETAETXEBARRIA ANDER

EPAIMAHAIKIDEAK

- AZKETA RIKE LEIRE
- BARAIAZARRA TXERTUDI PILARE
- MURUAGA GEZURAGA IKER
- YARTO GOIRI AITZBEA

I. Kategoria
(5-6 urte bitartekoak):
Marrazkiak

Egilea: Oier Bengoetxea Galdona

Adina: 6 urte

Herria: Gamiz-Fika

GABONAK DIRA



Egilea: Oier Torre Llona

Adina: 5 urte

Herria: Meñaka

BASOKO AZERIA LOREAK BILTZEN



Egilea: Joseba Beldarrain Etxebarria

Adina: 6 urte

Herria: Meñaka

LIBURUTEGIKO HARTZ HANDIA

Liburutegiko hartza handia



LIBURUTEGIA



6 urte

II. Kategoria
(7-8 urte bitartekoak):

Egilea: Alazne Martin Zugazaga

Adina: 8 urte

Herria: Gamiz-Fika

8 URTEKO NESKATXA BATEN FANTASIAZKO ABENTURA

Bazen herri txiki batean lirain, beltzaran, polit eta oso azkarra zen neskatxa bat. Neskaxaren izena Haizea zen eta 8 urte zituen ekainean eginda. Haizea alaba bakarra zen. Haizea alaba eta lagun oso ona zen. Bere gurasoak poz-pozik zeuden berarekin. Honela, gurasoek pentsatu zuten opari bat egin behar ziotela alaba hain ona eta ikasle hain ona izateagatik etxean.



Beraz, bere urtebetetze eguna heldu zenean sorpresa izugarria ematea erabaki zuten. Egun horretan pozez zorutzen zegoen. Gurasoek festa izugarria antolatu zieten berari eta bere lagunei. Baina, hori ez zen izan sorpresarik handiena! Sorpresa opariekin batera etorri zen.

Bere lagunek opari asko eman zizkioten eta, gainera, oso politak. Baina hura bai hura Haizearen sorpresa! Gurasoen oparia ikusi zuenean. Berak hainbeste amestutako tresna: ordenagailu bat eta, gainera, arrosa kolorekoa, berak gogokoen eta maiteen zuen kolorekoa.

Festaren ondoren, gaua iritsi zen. Hurrengo egunean eskolara joan behar zuen, baina Haizeak bere tresna berriarekin jolasteko gogoa zuen. Izan ere, aitak arratsaldean martxan jarrita utzi zion bere logelan, bera laguntxoekin jolasten ari zen bitartean.

Oraindik oheratzeko ordua ez zela ikusirik, gurasoei baimena eskatu eta ordenagailuarekin jolasten hasi zen. Ordenagailuan marrazkiak egin ahal zituela esan zion aitatxok, baita nola egiten zen irakatsi ere. Aitak Haizeari erakusteko marrazki bat egin ondoren, Haizea beste bat egiten hasi zen. Bitartean aitatxo amatxorengana joan zen gauzak egiten laguntzera.

Han geratu zen Haizea bere tresna berriarekin jolasean eta praktikan. Marrazki bat egitea bururatu zitzaion eta bere logela, bere etxea, lagunentzako etxeak eta bere herria marraztu eta margotu zituen. Horretan, oheratzeko ordua heldu zitzaion, hurrengo egunean eskolara joan behar baitzuen.



Ordenagailuan gorde zuen egindako marrazkitxoa, gurasoei musu eta besarkada handi bana eman eta oheratu egin zen.

Lotan goxo-goxo zegoela bere tresna berria, ordenagailua, lanean ari zen. Haizeak ez zekien ordenagailu magikoa zuenik. Hurrengo goizean, beti bezala, amaxok eta aitaxok esnatu zuten. Begiak zabaldu eta hori bai ezustekoa hartu zuena! Batera eta bestera begira hasi zen, ikusten zuena sinetsi ezinik. Den-dena arrosa koloretan ikusten zuen. Kalera irten eta han ere den-dena arrosa kolorekoa.

Eskolara ere arrosa koloreko autobusean iritsi zen. Andereñoa, maisuak, umeak, lagunak, mahaiak, orriak, liburuak, arkatzak, ikasgelak... den-dena arrosa kolorekoa. Heldu zen jolastordua eta han ere dena zen arrosa kolorekoa.

Haizea ikaratuta bezala zegoen eta bere laguntxoak, beti bezala, poz-pezik, saltoka eta zarataka. Bere lagunek Haizea bazter batean geldigeldi eta triste zegoela ikustean berarengana joan eta ea zer gertatzen zitzaion galdetu zioten, oso triste eta ikaratuta zegoela ematen zuelako. Baina, Haizea isilik geratzen zen, lagunei kontatuz gero barre egingo ziotelako.

Irrikitan zegoen etxera heltzeko. Etxerako ordua heldu zenean, arrosa koloreko autobusera igo eta han joan zen gure laguna bere arrosa koloreko etxera. Etxean korrikan sartu eta ordenagailura zuzendu zen. Han ikusi zuen ordenagailuko marrazkiko koloreak hainbat zirela eta ez dena arrosa kolorekoa. Haizea oraindik lehen baino harrituago zegoen. Orduan bat-batean ahots bat entzun zuen eta ordenagailutik zetorrela ikusi zuen. Bai, ordenagailua zen!

-Gustatu al zaizu gaurko egunaren kolorea?

Orduan Haizea ordenagailuarekin hitz egiten hasi zen eta esan zion, mesedez, bera izan bazen hori egin zuena betiko koloreetan ikusi nahi zuela berriro ere. Ondoren, ordenagailuak erantzun zion ikusiko zuela, gauean oheratzeko eta hurrengo goizean ikusiko zuela. Afaltzeko ordua iritsi zen, baita oheratzeko ordua ere. Ohera sartu eta lo seko geratu zen, egun berezi horren ostean.

Hurrengo goizean ere, han zituen gurasoak deika, ikastolara joan behar zuela eta altxatzeko esanez. Baina, Haizea beldur zen begiak zabaltzen. Hala ere, zabaldu zituen eta, hori bai ezustekoa berriro ere! Zer gertatu zela uste duzu? Ezetz asmatu zer gertatu zitzaion?



Egilea: Matxalen Alayo Zarate

Adina: 7 urte

Herria: Meñaka

ZIRKUKO BALOI HANDIA


Bazen behin Meñakako parkean zirku bat. Zirkuan baloi handi bat zegoen. Baloia oso handia zenez ez zen zirkuan sartzen. Orduan, sartzen saiatu zirenean, zirkua apurtu egin zen, eta behin eta berriz, baina alferrik. Zirkua berriro apurtu zen. Orduan ideia bat eduki zuten: baloia hustu egin zuten eta zirku barruan puztu, baina ez zuten funtzionatu. Orduan ideia zoragarri bat izan zuten: zirkua kanpoan egitea. Baina hala ere ez zen inor joaten. Zirkukoak kezkatzen hasi ziren, eta pentsatzen hasi ziren zer egin jendea erakartzeko. Askok pentsatu ondoren bururatu zitzaion kartel batzuk jartzea herri batzuetan. Kartel ikaragarri polita zenez, kartela ikusten zuen jende guztiari zirkura joateko gogoak sartzen zitzaion. Baina zirkuan ez zen jende guztia sartzen, orduan herriz herri joan behar izan ziren ikuskizuna egitera. Eta harrezkero zirkua herriz herri dabil leku guztietako haur eta helduak dibertitzen.



Egilea: Araitz Bengoetxea Galdona

Adina: 8 urte

Herria: Gamiz-Fika



TXAKUR TXIRULARIA

Bazen behin Peru izeneko txakur bat. Peruren ametsa txirula jotzea zen.

Behin Peruk musika denda batean txirula bat erosi zuen. Dendatik irten zenean Peruk partitura bat topatu zuen lurrian eta jo egin zuen. Gero beste bat topatu zuen eta hura ere jo egin zuen eta horrela hogeit hamar partitura aurkitu eta jo zituen. Partiturak jotzen amaitu zuenean etxe bat ikusi zuen, etxea karratua zen partituraz betea. Peru barrura sartu zen eta bost txakur ikusi zituen instrumentuak jotzen. Txakurrek Peru ikusi zutenean jotzeari utzi zioten. Batek Peruri esan zion ea beraien taldekoa izan nahi zuen, eta Peruk, baietz erantzun zion. Orduan Peru eta denak kanta bat jotzen hasi ziren eta bat-batean norbaitek atea kolpatu zuela ohartu ziren.

Peruk atea ireki zuen, alkatea zen. Peruk zer nahi zuen galdetu zion eta alkateak esan zion ea txirula jo nahi bazuen herriko plazan. Peruk baietz erantzun zion, eta alkateak hurrengo egunean joko zuela esan zion. Hurrengo eguna iritsi zen. Peru oso urduri zegoen baina jotzen zuen heinean Peruk urduritasuna galdu zuen. Ikusleek beste bat eskatu zioten, baina alkateak ezetz esan zuen. Orduan alkateak esan zuen Peruk ez zuela bertan beste bat joko baina bai herriko jai guztietan joko zuela.

Handik aurrera Peruk herriko jai guztietan jo zuen.



III. Kategoria
(9-12 urte bitartekoak):

Egilea: Leire Olazar Barona

Adina: 10 urte

Herria: Gamiz-Fika

LUMETXAK

Bazen behin, Ekialdeko erreinu batean, errege alargun bat. Erregea oso triste zegoen eta ezerk ez zuen pozten. Seme bakarra zuen eta etorkizuneko errege izendatu baino lehenago, ezkondu egin behar zela esan zion semeari. Beraz, emaztegaiaren bila hasi zen printzea. Erreinuean jaialdiak sarri antolatzen ziren, semeak erreinuko neska nobleak ezagutzeko aukera eduki zezan. Baina, printzeak ez zuen beraren gustuko neskatorik aurkitzen familia nobleen artean.

Halako batean, zaldi eder bat hartu eta erreinuean zehar bidaian ibiltzea erabaki zuen emaztegaiaren bila.

Lehenengo eguneko gaua heldu zenean, ostatu batean gelditu zen. Ostalariak alaba polita izan zuen eta printzea emaztegaiaren bila zebilela entzun zuenez, alabari arroparik politenak janzteko agindu zion. Printzeak oso ondo eta gustura afaldu ostean, beraren zaldia erantzako afaria ere eskatu zuen. Baina, beraren zaldia oso berezia zela esan zion ostalariari eta ohearen azpian batzen ziren lumetxak baino ez zituela jaten. Ostatuko alabak korrika hartu zuen erratza eta ostatuko gela guztien oheen azpiko lumetxak batu zituen. Kortara eman zizkion printzearen zaldia. Hau ikusita, hurrengo goizean printzeak arin irten zuen etxe hartatik.

Bigarren egunean, gaua heldu zenean, beste ostatu batean gelditu zen. Afaldu ostean, beraren zaldia erantzako afaria eskatu zuen berriro: oheen azpiko lumetxak, zenbat eta beltzagoak, hobe. Ostalariak, zazpi alaba ezkongabe zituen eta horietako bat erreinuko erregina izatea nahi zuen; beraz, beraren alabarik ederrenari eskatu zion logela guztien oheen azpiko lumetxak batzeko eta zaldia eman baino lehenago, printzeari erakusteko batutakoa. Sakukada lumetxa lortu zuen neskatoak. Hurrengo egunean, printzeak ihes egin zuen leku hartatik.

Hirugarren egunean, gauak aterperik gabe harrapatu zuen mutila. Basoan urrunean, argi izpi bat ikusi zuen eta harexerantza abiatu zen nondik zetorren ondo jakin gabe. Halako batean, baserri trakets bat ikusi zuen eta, atea jo zuen. Neska gazte batek ireki zion atea eta zer nahi zuen galdetu zion. Galduta zegoen bidaiari bat baino ez zela erantzun zion printzeak eta berarentzat eta beraren zaldia erantzako gaua pasatzeko lekuri zuen galdetu zion. Baietz erantzun zion neskak, sartzeko esan ostean, beraren aita zaharra aurkeztu zion.

Printzeak familiarekin afaldu zuen; zopa apur bat eta ogia. Ez zegoen besterik etxe hartan. Oheratu baino lehenago, mutilak zaldia erantzako oheen azpiko lumetxak eskatu zizkion neskari. Neska zurtz eginda lotu zen. Gau hartan beraren zaldia afaldu gabe geratuko zela esan zion, etxe haretan ez zegoelako lumetxik oheen azpian. Gau

hartan zaldiak barau egin behar izango zuen. Printzea oso pozik jarri zen erantzun hori entzun zuenean, eta ohera joan zen lasai.

Hurrengo goizean, gosalduta ostean, dirua ordaindu nahi izan zion etxeko zaharrari baina ez zion onartu. Baserri hura txiroa izan arren, bisitariari ez ziotela ezer kobratzen esan zion gizonak. Diruak ez zuela zoriontasuna erosten, baina behar duenari mesede egiteak poztasuna eta zorte ona ematen zituela esan zion printzeari.

Berba horiek entzun ondoren, mutilak benetan nor zen esan zion eta neskatoari bera-ekin batera erregearen gaztelura joateko eskatu zion. Neskatoak aitari baimena eskatu zion eta aitak baietz esan zion. Printzeak gerriko ugela eskatu zion aita zaharrari erregeari eramateko, horrela zoriontasuna eramango ziolakoan.

Neskatoa eta printzea zaldiaren gainean heldu ziren gaztelura. Erregearen aurrera joan ziren biak eta emaztegaia aurkeztu zion gazteak. Erregalua ekarri ziola esan zion semeak aita erregeari: bidaian ezagutu zuen gizonik zoriontsuenaren gerriko ugela. Erregeak aldean jarriz gero, bera ere zoriontsua izango zela uste zuen. Baina, hura ustekabea!!! Erregea hain lodi zegoenez, ezin izan zuen lotu. Betiko triste biziko zela pentsatu zuen erregeak.

Orduan, neskatoak hitz egiteko baimena eskatu zion erregeari. Zoriontasuna ez zela gauza materiala esan zion, bakoitza daukanarekin pozik egotea baino. Erregeak ez zion guztiz ulertu baina etorkizunean erregina ona izango zela pentsatu zuen eta ezkontzeko baimena eman zion semeari. Gainera, erregea bera hasi zen ezkontza prestatzen itzelezko ilusioarekin.



Egilea: Ainhoa Enzunza Mallona

Adina: 11 urte

Herria: Fruiz

KUTSADURA XURGATZAILEA

Espazioko Jauna, bere izarrean espazioari begira zegoela, konturatu zen espazioan gero eta laino gehiago zeudela udaberri hartan.

Hurrengo egunean, denei agertu zitzaien Espazioko Jauna gauez ametsetan esanez, gero eta laino gehiago zegoela eta ez dela Eguzkiaren argia ondo iritsiko gure planetara. Oso harriturik gelditu ziren, denek egin zuten amets berdinarekin, baina inork ez zion ametsari kasurik ere egin.



Orduan, ametsa gertatu eta aste batera edo, konturatu ziren, Eguzkiak ez zuela hainbeste argitzen, gero eta argi gutxiago eta bero gutxiago heltzen zela Eguzkitik.

Uda heldu zen eta, Eguzkiaren izpiak ia ez ziren ikusten. Oso arraroa izan zen denentzat.

Halako batean neska bati, burura etorri zitzaion, udaberrian egin zuen ametsa. Bere aitari kontatu zion izan zuen ametsa eta gogoratu zuen berak ere amets hori izan zuela, orduan biologoa zenez, biak batera arazo hori aztertzen jarri ziren.

Bere aitak, lagun bat zuen, apurtxo bat zoroa zena eta aspaldiko urteetan tramankulu berri bat asmatzen zebilena.



Beragaz gogoratu ziren eta berarengana joan ziren laguntza eske. Sorpresa itzela hartu zuten, berak ere udaberrian amets berdina izan zuelako eta tramankulu bat asmaten zebilelako.

Xurgagailu bat zen, kutsadura xurgatuko zuen eta Eguzkiaren argia eta beroa, berriz ere ondo helduko ziren gure planeta osora.

Espazio-xurgagailu honen egitekoa zen: Lehenik, espazioan zegoen aire zikin guztia hartu tubo baten bidez, eta tubo horrek erdian

zuen kutxa baten modukora botatzen zuen, bertan denboratxo bat egon ondoren, (minutu bat edo bi), kaxa barrutik, aire garbia irteten zen.

Pentsatu zuten xurgagailu horiek kutsadura asko zegoen tokietan jartzea: lantegi ondoetan, hiri handietan...

Kutsadura garbitu arte eduki zituzten makinak, eta hurrengo udan, jendea konturatu zen aldaketarekin eta oso pozik jarri ziren, argia eta beroa, lehen baino gehiago heltzen zirelako Eguzkiaren izpiak gure planetara, hau da Lurrera.



Mundu osotik eskerrak eman zizkieten, Espazioko kutsadura garbitzeagatik eta argia eta beroa Eguzkitik hona berriro heltzen laguntzeagatik.

Planetako kutsadura guztia garbitu zutenean, berriz ere Espazioko Jauna agertu zitzaizen ametsetan, ez zegoela kutsadurarik planetan, dena garbi zegoela, baina Lurra zaindu behar dugula eta ahalegintzeko ingurumena ez kutsatzen.

Hurrengo egunean konturatu zirenean berriro amets berdina egin zutela denek, gutxiago kutsatzen hasi ziren: gehienek transporte publikoa erabiltzen zuten, inork ez zituen gauzak lurrera botatzen...

Orduan bat-batean iratzargailuak jon zion Olatzi eta, konturatu zen goizeko zazpiak zirela eta ikastolara joateko ordua zela.

Hori ikusita korrikan ohetik jeiki zen eta leihora joan zen ikustera ea amets egin zuen guztia benetan gertatu zen edo ez. Begiratu zuenean, konturatu zen dena ametsa izan zela, baina badaezpada ere bere amari galdetzerara joan zen ea bere amtes berdina egin zuen edo ez. Bere ama harrituta gelditu zen eta, ezetz erantzun zion Olatzi.

Olatz konturatu zen, amets bat izan zela guztia baina geuk ere gaur egun berdina gertatzeko arriskua daukagula, horregatik eskatzen dizuet denon artean gure Lur maitea zaindu behar dugula.



Egilea: Olatz Enzunza Mallona

Adina: 9 urte

Herria: Fruiz

MARIREN OPARIA

Badakizue Anbotoko Marik zazpi urtetik zazpi urtera kobazuloa aldatzen duela, ezta?

Egun batean, ilargi betea zegoen gau batean Mari kobazulo bila Kirkinetu mendiraino heldu zen eta bertako kobazuloan bizitzen jarri zen. Mari sorgin ona da eta pertsona onei laguntzeko prest dago beti.

Behin batean familia bat paseoa joan zen Kirkinetura. Familia horretako Haizea izeneko 10 urteko alaba erratu egin zen eta beste bide batetik jarraitu zuen bere gurasoak konturatu barik.





Haizeak mendi tontorrean kobazuloa aurkitu zuen eta barrura sartu zan. Barruan atso bat zegoen lapiko bategaz. Haizea ikaratu egin zen baina atsoak ez beldurtzeko esan zion, Mari Anbotokoa dela eta orain zazpi urtetan Kirkinetun biziko dela. Haizea beragana joan zen eta lapikoan zer zeukan galdetu zion; Marik esan zion lurreko emaitzak hobetzeko ongarria prestatzen zebilela.

Haizeak kontatu zion matematikako buruketak egitea asko kostatzen zitzaiola. Marik barre egin zion eta hori berak erraz konpontzen zuela esan zion. Marik kandela zati bat eman zion etxera erorateko eta ha-

rek lagunduko ziola esan zion. Haizeak eskerrak emon Mariri eta poz-pezik irten zen kobazulotik.

Berehala aita eta amarekin aurkitu zan eta gurasoak non egon den galdetu zioten eta ia non aurkitu zuen kandela zikin hori, hori esandakoan kandela boligrafo magiko bihurtu zen. Gurasoak harrিতuta gelditu ziren baina ezin zuten Haizeak esaten zuen kobazuloa aurkitu.

Astelehenean Haizea ikastolara joan zenean estutxean Marik emandako boligrafoa eraman zuen eta andereñoak buruketak egiteko agindu zionean boligrafoa bera bakarrik idazten hasi zen. Haizea poz-pezik zegoen buruketak zituenean bolia hartu eskuetan eta bakarrik hasten zen idazten. Benetan boli magikoa oparitu zion Marik! Ea zuek aurkitzen duzuen kobazuloa Kirkinetun!



IV. Kategoria
(13-17 urte bitartekoak):

Egilea: Irati Enzunza Mallona

Adina: 13 urte

Herria: Fruiz

LAGAN MUTIL BILA

- Apa M^a Karmen, Janire naz, zure alaba Itziarren lagune.
- Bai, kaixo Janire. Zelan?
- Bueno, examenakaz baina ondo.
- Bale ba, hontxe ipiniko da Itziar.
- Bai, nor da?
- Ni, Janire. Denpora ona dauelez plaiara joatea erabaki dot eta Bakion jente asko egoten dalez, hobeto Lagara bagoaz, han hobeto pasako dogu, mutil gehiau dauz eta ia bakoitzak nobio bat topaten dogun!
- Bale, ba autobusen paradan itxarongo zaitut 4:30etan.
- Ala ba, geroarte.
- Bai, agur!

Holantxe amaitu zen Itziar eta Janire, bi lagun bananduezinen arteko elkarrizketa. Biak 15 urteko neskak ziren eta beti ibiltzen ziren elkarrekin. Janirek, ile beltz-beltza zuen eta begi urdinak. Altueraz baxua eta oso alaia. Itziar, ordea, neska ile-horia eta begi berdeduna zen. Biak oso ondo konpontzen ziren elkarrekin eta sarritan joaten ziren batera hondartzara, parketik buelta bat ematera, jaietan ligatzera... Lagun gehiago ere bazituzten baina nahiago zuten biak batera ibili. Gainera, besteei gurasoek ez zieten hondartzara joaten uzten, ezta 22:00ak baino beranduago etxera helitzen ere.

16:25ean biak zeuden geltokian autobusaren zain. Autobusa hartu eta Lagarantz abiatu ziren.

Ordu erdian hondartzara heldu eta mutil talde baten ondoan eseri ziren. Lagan gu-



rasoekin txikitan egonak ziren baina ez ziren larregi gogoratzen. Dakizuenetz, Lagan etxe bat dago hondartza amaitzen den lekuan eta neska biek entzuna zuten, han, duela urte batzuk zerbait arraroa gertatu zela. Jendeak zioenez, duela urte batzuk, 15-20 inguru, familia aberats bat bizi zen bere lau seme-alabekin eta oso pozik bizi ziren han, itsas ondoan lasai-lasai. Egun batean, laurak hil ziren eta inork ez daki zergatik. Ertzainak kasua ikertzen ibili ziren, baina ez zuten inolako pistarik aurkitu, kasua itxi zuten. Oraindik ere inork ez daki zer gertatu zen etxe hartan.

Bi lagunek lehenengo hondartzaren urertetik paseoa eman eta ondoren, uretara sartzeko asmoa zuten. Paseoan zebiltzala etxe zuri eta arrosa hartara heldu ziren, eta biak etxearen aurrez aurre gelditu eta hizketan hasi ziren:

- Etxe horretara sartzeko gogo itzela dekot, ze, nik uste dot, nahiz eta etxea berez bel-durgarrie ez izen, barruen zeozer badekola –esan zuen Janirek.
- Bai. Ni be bardine pentsetan egon naz, eta zuk gure badozu, biok batera sartuko gara ontxe bertan –erantzun zion Itziarrek.

- Bale ba, goazen. Holan gero, uretara sartuko gara!

- Ia goazen!

Bi neskak ausart-ausart abiatu ziren etxe hartara. Etxearen aurrez aurre gelditu ziren eta nahiz eta hondartzatik begiratuta norbait bizi dela eta ondo zainduta dagoela iruditu, hara heltzean, abandonatuta zegoela konturatu ziren eta bertan ez zela inor bizi. Berriz ere hizketan hasi ziren:

- Sar gaitezen, ezta? –galdetu zuen Itziarrek oso ausart.

- Bai, zelan ez! –erantzun zuen Janirek.

- Gauze bat egingo dogu. Ez gara banatuko, bada ezpadan.

- Bale eta zeozer arrarora ikusten badogu urten egingo gara.

- Ondo.

Etxeko ate zaharkitua ireki eta barrura sartu ziren. Biak bikinian zeudenez hotz itzela zuten. Han sarrera itzela ikusten zen eta urteetan argirik ikusi ez zuten hormetan goroldioa zegoen. Etxeko beheko solairu guztia arakatu zuten eta egongela handi bat, sukaldea, komuna, beste egongela txikiago bat eta hainbat gela gehiago ikusi zituzten.

Behean ezer ikusi ez zutenez, gero eta beldur gutxiago zuten eta gora igotzea erabaki zuten. Eskailera dotore batzuk zeuden eta goian ere, hainbat logela, komun eta egongela txiki bat aurkitu zituzten.

Bigarren solairutik kamarotera igo ziren eta usain arrarora somatu zuten. Berehala, burukomin itzela eta indarrrik gabe sentitu ziren. Larritu eta korrika batean sorosleengana joan ziren.

Hauengana heldu eta gertatzen zitzaiena kontatu zien. Gero eta txarrago zeuden eta sorosleek anbulantzia bat deitu zuten. Arinarin ospitalera eraman zituzten. Hara heldu zirenerako, biak konortea galduta zeuden eta oso azkar hartu zituzten medikuek, ez zekiten zer zuten eta bat-batean Itziarri

aurpegia berdexka jartzen hasi zitzaionean, pozoituta zeudela konturatu ziren medikuak. Ondoren, Janireri ere berdina gertatu zitzaion eta medikuak pozoia kentzen ahalegindu ziren.

Azkenean esnatu ziren eta non zeuden ere ez zekiten. Medikuek gertatutakoa kontatu zien eta orduan, egin zutenaz, hau da, hondartzako etxean sartzeaz gogoratu eta medikuei den-dena kontatu zieten. Medikuek ertzainei eman zien abisua eta ertzainak, etxera sartu ziren oxigeno bonbonekin. Ertzainei, neskeei gertatutako berdina gertatu zitzaion, hau da, beheko solairuan eta bigarren solairuan ez zuten ezer berezirik ikusi eta kamarotera igo zirenean usain arrarora zegoen lekura hurbildu, eta egurrezko otzara baten barruan antxinako perretxiko oso pozoitsu batzuk aurkitu zituzten.

Orduan, dena argitu zen: perretxiko haiek usain pozoitsua botatzen zuten eta hura arnasten zuena hil egin ahal zen berehala.

Horregaitik hil zen familia hura eta Janire eta Itziarri esker dena argituta gelditu zen.

ASTEN BATZUK GEROAGO...

- Kaixo Janire, Itziar naz. Zergaitik ez gara barriro Lagara joaten mutil guapo batzuen ondoan egoten?

- Bale baina etxera sartzea pentsa berez eeee?

- Bale. Orduen 4:25ean autobusen paradan.

- Bai, geroarte!!!

Lagara heldu eta mutil guapo batzuen ondoan eseri ziren, eta berriro paseoan joan zirenean etxe misteriotso hartan, bigarren solairuan, argi gorri arraro bat piztuta zegoela ikusi zuten.

- Janire, beitu argi gorri hori! Joango gara ostabere zer dan ikusten?

- Barriro!!! Ala ba, goazen!!!

Etxeko atea zabaldu zutenean.....

Egilea: Ibai Elgezabal Monasterio

Adina: 14 urte

Herria: Gamiz-Fika

AMETSA IZAN OTE?

- Nor naiz ni?

Horixe da bururatu zitzaion lehen gauza. Gizon gazte bat zen, altua, indartsua eta zuriz jantzia bururako estalki eta guzti. Mutila lurretik altxatu zen eta gerri aldean zeukan ezpata estalkitik atera zuen, gorantz altxatuz, ezpata zilar kolorekoa zen eta orrian sinbolo batzuk zituen grabaturik.

Bere inguruetara begiratu eta kobazulo batean zegoela konturatu zen, goian kristal urdin batzuk zeuden koba argitzen zutenak. Bat-batean bere etxetik gizon zahar bat agertu zen, gizon hark kapa beltza zeukan eta ez zitzaion aurpegia ikusten.

- Non demontre nago? –esan zion zuriz jantzitako gizonak besteari.

- Inon ere ez.

- Ba al dakizu nor naizen?

- Zu ez zara inor, hobeto esanda zu ez zinateke existitu ere egin behar.

Mutil gazteak pauso batzuk eman zituen atzeraka.

Hitz hauek esan eta zulo beltz batera erori zen zuriz jantziriko gizona.

- Sam! Sam! Ondo al zaude? Ni naiz Mathias.

- Ametsa izan ote da? –murmuratu zuen.

- Sekulako kolpea hartu duzu buruan horma horren kontra.

Ez zekien nola irten zen zulo beltzetik baina kale baten erdian zegoen etzanda eta bere aurrean beraren moduan jantziriko gizon gazte bat zegoen. Ile beltza zuen eta bere begiak ilea baino are beltzatzagoak ziren, bere aurpegiak zerbait gogorarazi zion, bere izena Sam zela gogoratu zuen eta aurrean zeukan gizona Mathias zen, zeukan lagun bakarra.

- Non gaude Mathias?

- Ez al dakizu Sam?

- Brabil-eko erreinuan gaude eta misio ofizialean etorri gara.

Lagun biak kaleetan zehar zebiltzan oinez eta elkarrekin mintzatzen. Kaleetan jendea joan-etorrian zebilen eta merkatariak zarata hutsean zebiltzan beraien produktuak saltzeko ahaleginetan.

Sami arraro egiten zitzaion hiri hartako etheen sabaietan erne zeuden arkulariak bazirudien norbaiten bila zeudela. Bi gizonak kale estu batean sartu ziren, orduan hiriko gerlari bat agertu zen ebanozko ezpata eta altzairuzko armadura batekin aurreko aldean Brabileko armarria grabaturik zuen gerlariak lagun biak ikusi eta hauengana

hurbildu zen korrika zera esanez:

- Assassain!!!

Mathiasek orduan bere ezpata atera eta gerlariaren bularra zeharkatu zuen erraztasun osoz honen bizitzarekin akabatuz. Samek orduan teilatuetera begiratu eta den-dena ikusi zuen arkulari bat zegoen teilatuan, honek gezi bat jaurti zuen eta Mathias bete-bete eman zion.

- Madarikatua –esan zuen Samek.

Orduan Samek eskuineko hankan zeukan aizto txiki bat atera eta arkulariari jaurti zion, honi hanka batean eman zion eta teilatutik erori zen. Segituan Sam Mathias nola zegoen ikustera joan zen, Mathias oso txarto zegoen, gezia barru-barruraino zeukan sarturik eta odol jariora oso handia zen. Hil zorian zegoela Mathiasek zera esan zion:

- Sam etorri hona.

- Zer Mathias?

- Gogoratu zure betebeharra: merkatari-erregea hil behar duzu, bilatu ezazu herrian honi buruzko informazioa.

Hau esan eta gero Mathiasek begiak itxi zituen betirako Sam Brabilen bakarrik utziz. Sam korrika aldendu zen kale hartatik jende ugari zegoen kale batera sartuz. Sam kale zabal batean zegoen portutik oso hurbil. Sam jende artean mugitzen zen herriko guardiek ez zezaten ezer susmatu. Portua oso zabala zen, itsasontziz beteta zegoen eta gainera plaza ugari zeuden bakoitzak erdian iturri bat zuena, jendea bertan biltzen zen hitz egiteko, leku ezin hobea zen informazioa lortzeko. Sam egarri zen eta portuko plaza batera hurbildu zen. Hau oso ederra zen, landaraz beteta zegoen eta iturri handi-handi bat zeukan erdian. San iturrira hurbildu zen eta ura edaten hasi zen. Bat-batean bi gizon agertu ziren, jantzi ederrak zeramatzaten aldean eta plazako eserileku batean eseri eta merkatari-erregeari buruz hitz egiten hasi ziren. Sam beste eserleku batean eseri eta entzuten hasi zen.

- Bihar da eguna –esan zuen gizon batek.

- Bai, bihar merkatari-erregeak emango du jaialdia.

- Tori, hartu eskutitz hau, bertan dago jaialdia baino lehen egin behar duzuna idatzita –gizonak eskutitz bat eman zion besteari.

Hau esan eta gizon biak plazatik irten ziren norabide ezberdinak hartuz. Samek eskutitza zeraman gizonari jarraitu zion. Bost minutu zeramatzan hari segika eta gizona kale estu batean sartu zen. Samek jenderik ez zebilela aprobeixatuz, gizonarengana hurbildu eta ezpata lepo ondoan jarritz, zera esan zion:

- Noiz izango da jaia?

- Ze jai? Nik ez dakit ezer.

- Merkatari-erregearena, ez badidazu ezer esaten zureak egin du –esan zion Samek garrasika.

- Ongi da, dena esango dizut. Jaia hemen izango da, portuan, merkatari-erregearen jauregian, bihar eguerdian. Dakidan guztia esan dizut orain utzi joaten.

- Ezin dut hori egin, ezin du inork jakin ni hemen nagoenik.

Hau esan eta Samek lepoa moztu zion eta patrikeran zeukan eskutitza kendu zion, eskutitz horretan zioen merkatari-erregearen gelako haga bat jaialdia baino lehen konpondu behar zela.

Sam oso nekaturia zegoen eta portuko ostatu batean pasatu zuen gaua.

Hurrengo egunean Sam esnatu, gosaldu eta ostatutik atera zen, merkatari-erregearen jauregirantz abiatuz. Bidean behar zuen guztia zeramala ziurtatu zuen: ezpata, daga, aiztoak, pozoia...

Sam laster batean heldu zen jauregira. Jauregiaren patioan zegoen jende guztia, merkatari-erregeak balkoitik ematen zuen hitzaldia entzuten adi-adi. Patioaren erdian iturri handi-handi bat zegoen ardoz beteta. Samek jendea hitzaldiari adi zegoela baliatuz pozoia bota zion ardoari. Hitzaldiaren ondoren jendea edaten eta jaten hasi zen eta segundu batzuk barru ardoa edaten ari zirenak eztulka hasi eta hil egin ziren. Orduan jende guztia beldurtu eta korrikan hasi zen. Merkatari-erregeak ere korrika batean hartu zuen bere gelarako bidea. Samek jauregian zegoen iskanbila aprobeixatu zuen merkatari-erregeari jarraitzeko. Sam merkatari-erregearen gelan sartu zen. Bertan merkatari-erregea eserleku batean zegoen eserita, beldurrez dardarka. Gelak bi pisu zituen eta merkatari-erregea apurtuta zegoen hagaren azpian zegoen. Sam gelaren bigarren pisura igo zen zaratarik egin gabe gelako eskailerak baliatuz. Samek orduan ezpataz kolpatu zuen haga. Haga apurtu egin zen eta merkatari-erregearen gainera erori zen hau hilez. Sam txarto sentitzen hasi zen, bista lausotu zitzaion eta handik gutxira konortea galdu zuen.

Begiak pixkanaka-pixkanaka ireki zituen eta Sam lurretik zutitu zen. Inguruetara begiratu zuen. Koba batean zegoen. Sami ezaguna egiten zitzaion koba hura, lehenago ere egon izan zen han. Bat-batean lehengoan agerturiko gizona agertu zitzaion beltzez jantzita eta zera esan zion:

- A, zu zara.

- Bai, ni naiz Sam.

- Sam, zu ez zara Sam.

- Ba orduan nor naiz?

- Lehengoan ere esan nizun, zu ez zara inor, zu ez zinateke existitu behar.

- Nola diozu hori? Orduan nor naiz ni?

- Zu amets bat zara, mundu honetako biztanleen ametsetatik sortuta zaudete. Zure existentziak ez du ezertarako balio.

Hitz horiek esanda Samen eskuak des-

egiten hasi ziren eta denbora gutxiren buruan Sam betirako desagertu zen.



Egilea: Larraitz Rike Garaizar

Adina: 16 urte

Herria: Gamiz-Fika

MAITASUN ARROSA

Egunero bezala orain dela bi urte-
tik, gaur ere hilerrira doa Domingo.
Bertan egiten duena ia inork ez
daki, baina gainontzekoek egiten ez
dutena egin ohi du. Noizbait bere
bizitzako parte izan den senidea bi-
siatu.

Ateak irekita izanen ziren goizeko
bederatziak alderako Manu, konser-
geak, jakin bazekielako nor etorriko
zen. Oso argi gogoratzen du Ma-
nuk Domingo etorri zen lehen aldia,
emaztea lurperatu eta hurrengo
egunean bertan izan zen, bere es-
kuetan liburu bat zekarrela. Jendeak
Domingori buruz esaneko istorio
asko zituen entzunak Manuk, emaz-
tea jo izaten zuela, beste emakume
batekin infidel zitzaiola... baina
azken finean egiak gezur guztiak jan



ohi ditu eta argi eta garbi ikusi zen Domingoren maitasuna emaztea gaixotu zenean
eta are gehiago bere azkena heldu zenean.

Ez zuten seme-alabarik izan, antza denez bietako batek arazoren bat zuelako, bai-
na beti ere zoriontsu ziren. Ez ziren herri hartakoak, baina bertara joa ziren bizitzen
ezkondu ostean eta orduan hasi ziren herrikoak txutxumutxuka ez zirela elizara joa-
ten, ez zutela umerik, ez zutela Angela inoiz bakarrik ikusten... eta horren ondorioz
hasi ziren ere lehenago aipatu ditudanak ere.

Domingoren benetako arrazoia hilerrira joateko emazteari emaniko hitza zen, haren
azken uneetan behin eta berriz zin egin zion ez zuela inoiz ere bakarrik utziko eta ez
zuela beste inor maiteko, baina emaztearen erantzuna inoiz ez zuen jakin jarraian
joan baitzen. Ordutik aurrera bere betebeharrak bakarrik hura zen.

Hilerrian bertan zegoenean bere emaztearekin hitz egiten zuen jakinik hark ez zio-
la inoiz erantzungo eta gero eskuen artean mantendu ohi zuen liburu ireki eta
irakurtzen zion. Hau egin ondoren arrosa gorri bat jartzen zion eta etxera joaten
zen. Liburu osoa irakurtzen zion eta beti zen liburu bera, bi gaztetxoren maitasun

istorio bat, denboraren kabuz Manuk beraien istorioa zela jakin zuen. Liburuko istorioak honela zioen:

“Angela familia aberats batetik zetorren neskatxa alai zen; uda guztietan Iparraldeko herrixka batera joaten zen oporretan bere gurasoekin. Bertan bere lagun taldea zuen eta herriko jaiak zirela aprobetxatuz barraketara joatea erabaki dute.

Bertan Domingo aurkitzen da, umezurtza da eta amonarekin hasi izan dena, baina azken urtean hark ere bakarrik utzi zuen. Orain fabrika batean zebilen lanean. Hau ere bere lagunekin denpora pasan joan zen barraketara eta bertan neskatxa gaztea ikusi zuen.

Elkarri begiratu zioten baina neskak aurrera egiten du eta lagunekin eta norian muntatzen dira. Domingok jarraitu egiten du eta bere ondoan esertzen da norian. Bertan hitz egiten hasten dira eta lagun on bihurtu.

Denborak aurrera egiten du eta berriz topatzen dira marrazketa kurtso batean. Bertara joan ohi zen Domingo marrazketa ondo ematen zitzaiolako eta baita gustuko zuelako. Angela arratsaldeak igarotera joaten zen modelo gisa gainontzekoek margo zezaten. Bertan bi gazteak elkar ezagutzen hasi ziren eta ikusi ziren lehen unekoa ezer ez zela konturatzen hasi ziren orain sentitzen zutenaz alderatuz behintzat. Mutilak zinemara joateko proposamena egin zionean neskatxak baiezkoa eman zion. Gau hartan bertan geratu ziren.

Neskatxak gurasoei ezer esan gabe alde egin zuen eta bertara heltzean Domingo aurkitu zuen arrosa gorri eta liluragarritz beterik eskuak. Une horretan jakin izan zuen bien artean egongo zen etorkizunaren berri neskatxak.

Egun hartatik aurrera bi gazteak gehiagotan gelditu ziren eta bikote bilakatu ziren. Une oso zoriontsuak igaro zituzten batera eta inoiz inork ere ez zituela bananduko zin egin zuten. Angelaren gurasoek ez zuten horren berri eta uda amaitzean etxera bueltatu behar zuten baina Angela ez zen joan gure herri hartatik eta gurasoek esan zioten hori horrela izateko aukera bakarra norbaitekin ezkontzea izango zela. Gauzak horrela neskak erabaki bat hartu zuen, bere mutil laguna gurasoei aurkeztea.

Domingo eta Angela joan ziren ba etxera ahalik eta dotoreen jantzita baina haren gurasoek mutil ziztrin bat zela ikusi zutenean eta gainera ez zuela dirurik ostikoka bota zuten etxetik. Angelak faborez eskatu zieten ez egiteko horrelako bidegabeke-riarik, baina gurasoek ez zioten kasurik egin eta egun berean bueltatu ziren beraien herrira.

Honela egin zuten tratua apurtu zen baina bietako inork ez zuen amore eman eta Domingo haren jaioterrira joateko dirua aurrezten hasi zen eta ahal izan zuen moduan ere bere helbidea aurkitzen saiatu zen. Urte luze bat behar izan zuen arrastoa jarraitu eta bere helbidea lortu ahal izateko; bestalde, Angelak nahikoa zuen bere amak aurkezten zizkion gizon guztien ezkontza proposamenak bazterteaz. Hasieran oso errez bazterten zituen proposamenak, baina denborak aurrera egin ahala eta bere maitearen inolako berririk jasotzen ez zuenez, gizontxo bati baiezkoa eman zion.

Baiezkoa eman eta hurrengo egunean jaso zuen Domingoren gutun bat, bertan honela zioen:

Laztan barkaidazu lehenago gutunik ez bidaltzarren

baina kontutan izan behar duzu ez dudala zure helbiderik

izan. Laster zugana joateko diru nahikoa izango dut eta gero ezkondu

ahal izango gara, beti ere zuk nahi ezkeru. Asko maite zaitut, urte hau luzeegia izan da zu gabe.

Domingo

Irakurri bezain laster negar batean hasi zen neskata, gutunari erantzun zion bera beste gizon batekin ezkontzeko zorian zegoela esanez baina lasaitu egin zuen ahalik eta gehien luzatuko zuela esanez.

Domingok gutuna jaso bezain laster maleta egin eta Angelaren jaioterrira alde egin zuen. Bidaia luzea izan zen baina helburua jakinik nahikoa zitzaion Domingori. Azkenean iritsi zen, ezkontza ospatu baino egun bat arinago izan zen eta bi gazteek batera alde egin zuten.

Orduan Domingok marrazketa gela hartan egin zion erretratua eman zion, arrosa gorriaren erretratua, bi gazteen maitasunaren ikur zen landarea bihurtu zen arrosa.

Herritik alde egin eta hiru egunera gazteak geroago bien maitasunaren herria izango zenera iritsi ziren. Bertan ezkondu ziren eta baita bizi ere.

Honela zioen gizontxoaren istorioak eta joan aurretik beti egin ohi zuen legez bere emazteak banatuta egon ziren momentu haietako batean idatzi zuen poema bat errezitatzen zuen.

Eguzki izpi batek esnatu nau
gelan isuritako argitasun
tipiarekin maitasun arrosa
argitzen da. Neure pentsamenduetan
galtzen naiz noraezean.
Alperrik ari naizen
sentsazio ankerraren zama dut
baina saiatu beharrean nago.
Maite zaitudalako.

V. Kategoria
(18 urtetik gora):

Egilea: Aitor Azketa Rike

Adina: 36 urte

Herria: Gamiz-Fika

BIZITZAREN JOAN-ETORRIAK

Egunaren azken orduak ditut aurretik eta ni etxeranzko bidean noa, akidura somatzen dut nire gorputz osoan, nire pentsamenduetan. Atari aurrean nago nire patrikeran dudan giltza atera ezinik, etarteko atea ireki eta postontzira hubildu naiz berau husteko asmotan. Ateko zirrikitutik sartzen den argi eskasaren eta bonbila zaharkituaren argiaren laguntzaz postan dauden gutunak norenak ote diren igartzen ahalegintzen naiz: publizitate orri zein gutunak, bankuko fakturak, betiko kontua! Zakar ontzia beteta dago, oraingoan ere norbait aurreratu zait eta gainezka utzi du ontzia, zenbat alferrikako paper bidaltzen dizkiguten etxera. Nola liteke egunero hainbeste paper botatzea birziklapenaren aroa deritzagun honetan?

Ez dut gogoratzen noiz ireki dudan azkenekoz postontzia ilusioz beterik. Azkenaldian dena da iragarki, bankuko informazio, poltsikoko telefono, Iberdrola edota Ur Patuergoaren gutuna. Baina noizbehinka bakanen bat nitaz gogoratu eta uda sasoiaren eskuz idatzitako postaltxoren bat bidaltzera ausartzen da. Teknologiaren garai honetan ahaztu egiten zaigu zer nolako ilusioa eragiten duen postaltxo edo gutun bat jasotzeak; eta zer esanik ez eskuz idatzia baldin badago, zer idatzi digun asmatu ezinik gabiltzanean edo argazkiak liluratzen gaituenean. Bai xarmangarria!

Ezin dugu ahaztu Euskal Herria inmigranteen herria izandakoa dela eta familia askok elkarren berri izateko nahiz elkartasuna adierazteko modu bakarra gutun bidez izaten zela. Nire postontzian aspaldi ez dut horrelakorik ikusi. Baina, baina, zer da hau? Bai gutun bitxia! Boligrafoz idatzia dago eta atzean igorlearen datuak agertzen dira!

Gutuna nire eskuetan, zer ote zioen igarri nahian, milaka galdera nire buruan bueltatuta. Gutun hura hartzeko beranduegi zela konturatu nintzen, baina zerk bultzatu ote zuen niri idaztera? Oroitzapen ugari etorri zitzaizkidan, onak eta ez hain onak. Gatazka txiki bat sortu zen nire barruan; alde batetik, berari buruz zerbait jakiteko irrikaz nengoen, baina bestetik, sufrimendu asko eragin zidan pertsona horren irudia neuregandik aldentzea kostatu zitzaidana ikusi ondoren... Milaka galdera nire inguruan, esandakoak eta airean geratutakoak.

Ondo begiratu ote dut izena? Bai, bai bera da, ez dago inolako errakuntzarik, dudarik gabe. Noizbait gertatu behar zuela banekien baina orain ez, oraindik ez nago prestatuta eta uste dut ez naizela sekula egongo honi aurre egiteko.

Gutunak Cabo Verdeko helbidea dakar. Bai arraroa! Ez da berak nahi zukeen tokia, txikiegia da geldi egon ezinik eta tokiz toki ibiltzea gustatzen zaion pertsona batentzat. Hori bai, itsasotik gertu bizi nahi zuen eta azkenean lortu du. Bere nahia bidaiatzea zen, munduan zehar ibili eta barau sentitzea zein bizitzea. Ez dakit askatasun beharra zuen edota gurea bere amaierara heldu zen, baliteke bikotean egindako planek bera ez asebetetzea edo lotura gehiegi izatea askatasuna behar duen arima batentzat. Denbora pasatu da berari buruz ezer ez nekienetik eta egunak joan egunak etorri nire bizimodutik kanpo uztea lortu nuen. Ez dakit bera nire ondoan gera zedin zer bait egiteko aukera galdu ote nuen, ez dakit nire errua izan zen edo eguneroko bizitzak behartu gintuen horretara.

Gutuna eskuetan hartu eta eskaileretan gora abiatu naiz bonbilatxoaren argipean, baina mamuak uxatu ezinik nabil. Bere ametsak nireak izatea nahi zuen, itsasontzi bat erosi eta mundua zeharkatzea nahi zuen. Une batez damu dut amets hori gauzatu ez izana, baina ez zen nire ametsa. Aske izan nahi duen arima baten ametsak ziren. Askatasuna, bidaia zaletasuna, batek daki zerk bultzatu zuen gure artekoa amaitzera.

Igogailuko ispiluari begira bere irudia datorkit burura, guztiz alai somatzen dut. Gutunak zer dioen jakiteko irrikaz nago, baina era berean gutuna irekitzeko ausardia falta zait, zer esan nahiko ote dit?

Etxean sartu, poltsa sofa gainean bota eta gutuna irekitzeari ekin diot. Orritxo bat dago txukun-txukun tolestuta, beronen barruan argazki bat dago. Han zegoen bera belaontzi baten barruan zutik, itsasontzi txikiz inguratutako portutxo batean. Badirudi azkenean bere ametsa betetzeko era aurkitu duela!

Gutuna irakurtzeari ekin diot:

- Kaixo, maitea!
- Maitea! –uste nuen gehiago ez nuela entzungo horrelako barbarik beregandik, baina hor zegoen ezer gertatuko ez balitz bezala. Orain dela hilabete batzuk makina bat gauza aurpegiratu genizkion elkarri, ez zen izan batere gozoa. Harrituta nago, baina egia esan bera horrelakoa da; esanak esan beti inguratzen zen irribarretsu, gertatutakoa inoiz gertau ez balitz bezala, ez zion garrantzi handiegirik ematen aurretiaz gertatutakoari.




Segituan ondo zegoela esaten zidan, Tenerifen egon zela hilabete pare batez eta oso pozik

zegoela. Itsasontzi txiki bat eskuratu zuela eta lanpetuta egon dela lanean eta berau konpontzen. Bere ametsa betetzeko asmoa duela eta abentura aurrera doala. Orain Cabo Verden zegoela eta Amerikara joateko asmoa zuela. Baina nire falta somatzen zuela-eta, laster bisita egitera etorriko zela zioen, ni ikusteko amorratzen zegoela.

Ezinezkoa da! Nola liteke berriro garai batean hainbeste ahaztea kostatu zitzaizkidan pentsamenduak bueltaka eta jiraka ibiltzea? Ez diot neure buruari galdera gehiago egin nahi, are gutxiago erantzun bila hasi. Errealitatea onartzeko garaia da, nahiz eta ez izan gauza erraza. Onena gutun azala apurtzea izango da. Gutuna eta argazkia gutunazalean sartuko ditut eta txiki-txiki egingo dut edo hobe, su emango diot.

Armairuan dudan kandelatxoa eta poxpolu kaxa hartu eta hondartzara joatea erabaki dut. Egoera honekin bukatu beharra dagoela-eta, zer laguntasun hoberik, askotan nire lagun mina izan den itsasoarena baino! Momentu onak pasatu ditugu elkarrekin; goibelaldiak eta pozaldiak. Ez da munduan entzule hoberik! Oinetakoak eskuan hartu eta itsas ertzeratu hurreratu naiz, itsasoaren baretasuna sentitu nahian. Kandela piztu eta gutunazalari su eman diot eta itsas ertzean utzi dut gutunazala emeki-emeki erretzen joan dadin eta azken hondarrak itsasoak eraman ditzan; hainbatetan nire pentsamenduekin egin duen bezalaxe. Etixeranzko bidea hartu dut gutuna pixkanaka-pixkanaka erretzen ari den bitartean, era berean nire zama aldentzen dela nabaritzuz.

Bizitza norabide biko errepidea dela diote, joan-etorrikoa; baina, datorrenari gogotsu eta pozik heltzeko, iraganari joaten utzi behar zaio.



Egilea: Rikardo Alonso Arberas

Adina: 60 urte

Herria: Gamiz-Fika

ZURIREN ONDAREA

**Pasa den azaroaren 8an, Bull Terrier arrazako txakur bik txakurtxo bati eraso egin zioten Bilboko Miribilla auzoan. Zuri, hala baitzuen izena eraso jasandako txakur-eme txikiak, sabelaldean jasotako bi hozkadaren ondorioz hil zen. Florentinak, txakurraren jabeak (amak) ere hozkadak jaso zituen eskuetan eta ospitale-
ra eramán behar izan zuten antsietateak jota. Ipuin hau Florentinaren, Manuelen eta euren bi seme Angel eta Antonio Manuelen –42 eta 40 urtekoak, hurrenez hurren, biak gormutuak eta ezinduak-omenez idatzi dugu.**

Zuriren ondarea

Ene senide maiteak: ama Florentina, aita Manuel, Angel eta Antonio nire bihotzeko nebak eta Pitu katutxoa, abenturetako laguna. Mila esker ni zaintzen jarraitzen duzuelako eta bihotz barrenean naukazuelako, ez dut nahi zuek triste egoterik. Betiko oroitzapen alai bat gera dadin nahi nuke. Ez dadila atsekabe arrastorik gelditu; izan ere, zuongan islatzen den hori bizi-irakaspen itzela da niretzat: borrokarako grina, bizitzeko gogoa, borondatea, indarra, aurrera egiteko kemena eta, batez ere, maitasuna zirrikitu guztietatik. Zuek, aita eta ama, bizitzaren malda horretan beti garrantza, oztopo eta ezbeharren aurrean tinko. Angel eta Antonio, zuek bai adorea! Zuentzat ez dago ezintasun fisikorik, nirekin jolastu zarete beti, ezer esan barik ere, dena ulertzen nizuen. Zuen aurpegiak pozaren eta esker onaren ispilu izan dira beti. Ez dut sekula ahaztuko zelako maitasunez ematen zenidaten nire janaririk gogokoen: oilaskoa penilarekin.

Azaroaren 8ko arratsaldea ez zen maitasun-istorio zoragarri baten amaiera izan eta, beraz, ez dugu malkorik isuri behar. Ama, jakizu espaloian etzanda geratu nintzela, zuri itxaroteko eta eskuak miatzatzeko, txakurren paradisura joan baino lehen. Gogoan dut zelan hartu ninduzun, hain xamurkiro, zure begietan uztartuta bizitza eta heriotza, ontasuna eta esker ona. Geratzen zitzaizkidan urteetarako niretzat gordeta zenuen maitasun guztia une horretan eman zenidan. Zuri esker, gero eta jasanezina goa zen minari aurre egin ahal izan nion, nigan beste izaki batek arnasa hartzen zuela ematen baitzuen. Zelako laisatasuna sentitu nuen zure aurpegia ikustean, ama, zure begiradaz argitu ninduzun bizitza honetatik besteranzko iraganbidean nengoan une hartan. Zure esku zaurituak sentitu nituen, azken aldiz lastandu egin nahi ninduzun. Zure malkoak nire gorputz hauskorra garbitzen ari ziren. Lo goxoa izan zen, maitasunez betea.

Zelan idatziko dizuet, bada, maitasun-istorio bat maitasun-hitzik gabe. Nire ametsetan zerrua ikusten dut, izarrez josia. Batzuek berebiziko distira dute eta batzuetan zuon izenak ikusten ditut argi biziz idatzita. Oraindik ere, ez izan zalantzarik, mun-

duan diren gauza guztien artean zuek zaituztet maiteen, konpainiarik onena eman zenidatelako eta sekula itzaliko ez den maitasuna. Elkarrekin entzun ditugu txorien kankak udaberriko egun alaietan, elkarrekin jolastu gara belarretan, batera egin dugu barre eta larrosak usaindu eta mila kolorez jantzitako loreak ernatzen ikusi...

Jakingo bazenute zenbat maite zaituztedan! Bihotz barru-barruan sentitzen dudanez honek ez du mugarik. Begiak ixten ditudanean, nire pentsamenduetan agertzen den bakarra zuek zarete.

Ama, azaroaren 8ko arratsaldean isuritako malkoak hazi bihurtuko dira eta beraie-tatik zuhaitz berezi bat ernalduko da, jakinduriaz eta bizitzaz betea. Bere adar luze dotoreak ortzadarraren koloreez jantzita egongo dira eta hezur itxurako hosto ede-rrak izango dituzte zintzilik.

Eta, bat-batean, lorrats argitsu bat ikusi dut. Haren atzetik joan eta bideska batean agertu naiz. Aurrera noa, erromes baten antzera, fede biziz, pozarren. Pozaren pozaz zaunka egin dut eta nire adausi bakoitzari oihartzun ozen batek erantzun dio.


Eguzkia eta haizea bihotz barruraino sartu zaizkit, bataren epeltasun goxoa; bestea-ren freskotasun garbia. Sakon hartu dut arnasa eta arnas-hartze bakoitzarekin heda-tu egin naiz, lau haizeetara.

Hankatxoak aurreratu ditut, baina batere ahaleginik egin gabe, hegan noala dirudi.

Ez dakit zehazki non nagoen, baina hemen, toki argitsu honetan, ez dago beldurraren ez gorrotoaren arrastorik, ezta atsekabearentzako lekurik ere. Zuokin gogoratzeak in-darra ematen dit eta bakea, inoiz hilko ez den bakea. Airean noa, ezelako zama barik, zuenganako maitasuna da aldean daramadan bakarra. Horixe da betiereko bizitza honetan dudanez altxorrik preziatuena.

Epilogo

Eta iluntzean, gure istorioko familia atea zabaltzera doanean hantxe dago Zuri exteko sarreran etzanda, guztiei begirada ezta zuzenduz, dardara leunean, ilu-sioaren eta maitasunaren ikur. Isilatasuna nagusi, Zuriren begiradak eta senideen aurpegiek dena adierazten baitute. Gabonen atarian ez dakite postal ederragorik irudikatu. Lehengo maitasunak bere horretan darrak. Haizea harrotu egin da eta Florentinaren hitz dardaratiak barreiatu ditu espazioaren luze-zabaleran: "mila es-ker, Zuri, gure txakur maitea. Zeuri esker ikasi dugu bizitza, bere gogorrean, zora-garria dela".



Egilea: Astrid Barona

Herria: Gamiz-Fika

MESEDEAREN TRUKEA

Bazen behin herri txiki batean bizi zen nekazari txiro bat. Seme bakarra zuen eta oso gogor lan egin arren, ez zuen dirurik semeari eskola emateko.

Egun batean, basoan egurra batzen zebilela, lagun bat sokorruka laguntza eske entzun zuen. Sokorruak nondik zetozen jakiteko, geldi-geldi geratu zen eta gero harantza abiatu zen korrika. Arnas estuka baso itxi-itxiaren barrura heldu zenean, ia samaraino lokatzetan sartuta zegoen sei urteko mutiko bat aurkitu zuen. Nekazariak, birritan pentsau gabe eta mutikoari ezer galdetu gabe, atera egin zuen lokatz artetik beraren bizitza arriskatuz.

Mutikoa beraren bidean joan zen eta gure nekazariak betiko bizimoduari ekin zion. Handik aste batera, ustekabeko bisita izan zuen baserritarrak. Zaldi zuriak aurrean zituen gurdia heldu zen beraren baserrira. Gurdian heldu zen gizona markesa zen eta mutikoaren aita zen. Beraren semearen bizitza salbatzeagatik dirua eman nahi izan zion nekazariari, baina honek ez zion dirurik onartu nahi izan. Egin zuena ez zela aparteko gauzarik, bihotz oneko edozeinek egingo zuela esan zion aberatsari.

Gizon biak hitz egiten egon ziren bitartean, nekazariaren semea agertu zen baserriko atarira. Gaztetxo hori nor zen galdetu zion markesak nekazariari eta beraren semea zela entzun zuenean, ideia bat bururatu zitzaion markesari. Nekazariaren semea beraren gazteluan onartzea eta beraren semearekin batera goi-mailako heziketa ematea.

Beraren familiako kidea balitz bezala tratatuko zuela esan zion. Baserritarrak baietz esan zion, nahiz eta oso triste geratu zen semea egunero ez zuena ikusiko bazekielako.

Urteak pasatu ziren. Baserritarraren semea ikasle oso zuhurra izan zen eta munduko Unibertistaterik onenean ikasi zuen medikuntza. Mediku ospetsu, dirudun eta aparta bihurtu zen baina herrimina sentitzen zuen.

Aitarengandik urrun urte asko igaro arren, ez zuen ahaztu. Nekazari zaharra bakarrik zegoenez, aitarekin bizi izaten joatea erabaki zuen mediku ospetsuak. Herri txikiko mediku moduan lan egingo zuen.

Halako batean, zaldi zuriak aurrean zituen gurdia heldu zen berriro baserrira. Baina oraingoan, baserritarrak antzina bizitza salbatu zion markesaren semea zetorren. Markesa oso gaixorik zegoela esan zion baserritarrari eta bizitza salbatu liezaiokeen mediku bakarra, herri txiki horretako mediku aparta zela. Medikuak berria entzun zuenean, markesaren gaztelura joan zen eta ebakuntza arriskutsuaren ostean, bizitza salbatu zion markesari.

Berriro, baserrira bueltatu zenean, aita beraren begira aurkitu zuen medikuak. Nekazaria pozaren pozez zegoen halako semea zuelako, bai pertsona moduan bai mediku moduan. Eta, hauxe esan zion: "Seme maitea. Lan egizu beti dirua nork duen erreparatu barik eta eskua beti luzatu behar duenari".



**FRUIZKO
UDALA**



**GAMIZ-FIKAKO
UDALA**



**MENAKAKO
UDALA**



**ARRIETAKO
UDALA**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

